

EUSKALTEGIEN TXOKOA 34. ZENBAKIA

AEK euskaltegia



Egileak:
Hernaniko AEKko ikasleak



23. Korrikako omenduak

Aurtengo Hernaniko KORRIKAK Malores, Uria eta *Traman* omenduko ditu eta euskaltegiko taldean haien biografia txiki bat osatu nahi izan dugu han eta hemen aurkitutako informazioarekin.

JUANJO URIA ZUBIARRAIN

Hernanin, 1951n jaioa, Zikuñagako Aterpe etxean. Guk daki-gula, Damaso Uria zuen aita, eta ama, Maria Pilar Zubiarrain Esenarro (Txirritaren laguna zen Juan Joxe argifiaeren alaba, *Panttaleone* bertsolariaren biloba). Garbifieren senarra da Juanjo, eta Maddi eta Nerearen aita. Aitona jostalaria ere bada: gaur biloben bokata hartuta etorri da euskaltegira gurekin gosalzera.

1962an Antonio Zabalak Ausporekin ateratako Txirritaren bertsoak biltzen zituen liburua erosi zuen kalean. Aitonak ikuluan belar txorroka gainean esertzeko eskatzen zionean, bazekien gustura arituko zela aitona-rekin pasarteak entzuten eta bertsoak kantatzen behi artean.

Gaztea zela hasi zen fabrikari lanean. 17 urtera arte EPOn egin zituen ikasketak, eta ondoren, fabrikara lanera. Erretiratu arte kooperatiban aritu zen Juanjo. Gustuko zuen salerosketen mundua. *Zintzoak* taldeko entrenatzaile izan zela ere badakigu, izan ere, gutako batzuen anaien entrenatzailea izan zen Atsegin-degin. Gogoan du nolakoa zen haien arropa: traje txuria eta marra gorria. Futbiletako arropak erosteko dirua behar zen eta Gureolan errifak saltzen omen zizkien lankideei. 4-5 urtez aritu zen gazteen entrenatzaile. Arнора ere joaten omen ziren aste santuan egun batzuk elkarrekin pasatzera borda batera.

Alkatea izan zen Hernanin 1979tik 1983ra Herri Batasunarekin. Garai hartan gizartea pil-pilean zegoen. "Demokrazia berria" iristear zegoen eta garai gogor hauetan tokatu zitzaion lan egitea. 4-5 herritar hil zituzten bere legegintzaldian. Balantxan nola hil zituzten gogoan dugu ikasleok ere. Zikuñagako festak ziren. Luis Mari, *Porttu*, Salvador... Eta aurretik *Zapa*, Antimasbere... Tomas Albarena ere gogoan du Juanjok. Hilabete lehenago Juanjok berak bere atentatua jasan behar izan zuen irailan: auto azpian bost kartutxo handi jarri zizkieten. Zorionez, ez zen lehertu. Atxilotua ere izan zen. Oraindik oso hunkigarria da bizipen hau berriz konta-

tu beharra.

Errepresio handia tokatu zitzaion, mehatxuak, telefono deiak, gutunak, *Pintto* baserriko txakurtxoarekin bidea egin beharra... baina dena dela, oso gustura lan egin zuen udal-etxean. Lan handiak egin ziren bere epealdian, talde lana ikaragarria izan zelako, baita oposizioan zeuden beste taldeena ere: zaharren egoitza, kiroldegia, anbulategia handitzeko lanak, auzoetako azpiegitura berriak, Añarbeko urak mankomunitatean, jubilatuen etxea, base-riretarako bideak... Madrilera askotan joan omen ziren diru bila. Madrilan Suarez zegoen (UCD) eta gestioak egiten zortea izan zutela dio Juanjok. Erabaki asko denon artean hartu omen zituzten legegintzaldi horretan. Aktak ikusiko bagenitu, denok batera akordio asko lortu omen zituzten. Herriarentzat lan egitea zen bere filosofia, eta ondorioz, inoiz ez zuen dirurik kobratu nahi izan egindako lanagatik.

Oso gaztetatik euskara eta euskal kulturaren aldeko joera hartu zuen. Urte asko eman ditu euskara, kultura eta Euskal Herriaren aldeko lanean, euskara klaseak ematen, kultur ekitaldiak antolatzen... 1975etik Hernaniko bertsolaritzan erreferentzia izan da. Gauza asko egin ditu bertsolaritza munduan: Txapelketa Nagusi eta herrialdeetako antolatzaile, epaile bat-bateko nahiz idatzizko bertso sariketetan, bertso eskolako irakasle, gai-jartzaile, aurkezle, ikerlari... Bertso idatziak, bertso jarriak, eta halakoak oso gustuko zituen. Soka mugitzen beti Juanjo!

Sagardoaren Kofradiako kide ere izendatu zuten. Askok gustatzen omen zaio sagardoa. Kaxko elkartearen Karmengo jaiak antolatzen ere lan ikaragarria egin du urteetan: bata eta beste elkarriketatu, aurkezle lanak egin, bertsoak prestatu... Eta gure euskaltegiko ikasle askoren mintzalaguna ere bada azken 12 urteetan. Zoriontsu egiten omen du asteleheneroko mintzalagunekin duen hitzorduak. Marisol De Celis ikasle ohiari eskainitako bertsoak ezagutu ditugu gaur. Erabat hunkigarria izan da gaurko mintzogosaria. Eske-



MALORES ETXEBERRIA

Zaldibian jaioa, 1957an. Ekhi eta Itsasoren ama. Pelloren emaztea. Malores eskola nazionaleraino ikasitakoa da, dena erderaz, baina bere etxean oso zorrotzak ziren euskararekin. Gaztetan bere kuadrillan ia dena gaztele-raz egiten omen zuten. Geroago hasi ziren euskaraz egiten. Txikitik oso zoriontsua izan zen eta kalea zen bere jolastokia. Zaldibian inmigrante pila bat zegoen euskaraz ez zekitenak, eta beraien artean pixkat euskaraz egiten zuten, Zaldibia-ko haurrek natural hartu zuten euskaraz entzutea.

Bere aita oso euskararen aldekoa zen eta Beasainen lanean aritu zen ikastola bat sortzen. Bera eta bere ahizpa Beasaingo lizeo edo ikastolara joan ziren eta han dena euskaraz egiten zen. Diru asko behar zenez ikastola mantentzeko, desagertzeaz zela, institutura pasa ziren eta han egin zituzten urte batzuk. Handik Donostiara etorri zen Historia eta Geografia ikastera. Hori ikasten zuen bitartean Pello Zubiria ezagutu zuen, gerora bere senarra izan zena.

Ikasketak amaitu eta Santo Tomas Lizeoan hasi zen lanean hiru hilabeteko ordezkapen bat egiten. Bera jende gaztearekin ez da oso ziur sentitzen eta bi urte lizeoan eman ondoren, AEKra etorri zen. Barnetegietan hasi zen, Abaltzisketan, esaterako. AEKn lan egiteaz gain, UZEIn hasi zen lanean.

Geroxeago historialari alemaniar baten alaba -Alizia Stürtze-azaldu zen eta Gordailu argitaletxearekin liburu batzuk publikatu zituzten. Editorial horretan Koro Etxeberriak egiten zuen lana. Momentu horretan Koro Hernaniko zinegotzi zegoen. Korok komentatu zion Hernanin euskara teknikari bat behar zela, udaletxeak erabat gaztele-raz funtzionatzen zuela, eta 1990.ean Hernanin hasi zen lanean oposaketa atera ondo-



ren. 32 urte pasa ditu Hernaniko udaletxean lanean euskara teknikari. Eta esan dezakegu bera eta beste batzuen lanari esker, udaletxe honek euskaraz funtzionatzen duela gaur egun.

Gu geu ere euskara zerbitzura joaten ginenean dirulaguntzak eskatzera, hantxe egoten ginen Malores eta Marianekin. Beti atsegin gurekin.



RICARDO MENDIOLA EGAÑA "TRAMAN"

Anttoni Egaña hernaniarra eta Joxe Mendiola astigarrarra zitu- en guraso. 4 arreba izan zitu- en eta emakumearen egu- nean jaio zen etxeko mutila 1951. urtean. Hernaniko Kale Nagusi- ko 21. zenbakian zegoen "Egaña" taberna ezagunaren gainaldean jaioa eta bizi ere bertan bizi dela uste dugu.

Bere aitak Astigarragan lan egiten zuen zurgintza edo aroz- tegi txiki batean eta 3 urterekin Plaza Berrian tranbian sartzen omen zuten makinistaren ondoan, eta Astigarragan bere aitak jasotzen omen zuten. Ez zuen artean eskolan egoteko adinik eta tabernan egon ordez, aitaren tailerrera bidaltzen zuten makinistaren ondoan.

Txikitik mojetan ibilitakoa izan zen eta ondoren, Santo Tomas lizeoan ibili zen. Perito ikasketak egin zituen, baina hori nahikoa ez, eta 50 urte zituela ingeniari-za ikasketak burutu zituen.

Kirolari dagokionez, gaztetan futbola praktikatu zuen eta urte askotan errugbia HCR taldean.

1983-1987 urte artean, Hernaniko alkate izan zen. 1987ko hauteskundeetan, Herri Batasunako batzarkide izan zen Batzar Nagusietan.

Ikasketa garaian herriko ADEM akademian ezagunean lan egiten zuen. Bertan Ocio, Iruindarrak... ezagutu zituen. Perito eskolan irakasle izan zen urte askotan. Tolosako institutuan egon zen irakasle erretiratu zen arte.

Urte asko darama euskal presoei laguntzen beraien ikasketak egin ahal izateko. Lan ikaragarria egin du ikasleei materialak lortzen, gestio administratiboak egiten, matrikulak kudeatzen, apunteak lortu eta sartzen, aholkuak ematen...

Gaur egun txirrindularitza da bere pasioa. Batetik herriko jubilatuek txirrindularitza talde bat sortu zuten JOCekoek eta askotan ateratzen dira. Eta bestetik, ia urtero *La Marmotte* proba egiten du Alpe d'Huez eta *Quebrantahuesos* ezaguna egiten du Aragoian.

Sasoiko dago. Adibidez, 50. urtebetetze eguna ospatzeko Triatloi txuria osatu zuen Jakan: oinez (15 km), txirrindaritzan (30 km) eta eskiatzen (15 km).



Egileak: 6. taldea (Begoña, Mila, Pili, Jonkar, Joxemi, Txuri, Txus)

Itsaso Madariaga Zapirain – Elkarrizketa



Itsaso Madariaga Zapirain arkeologoa da eta mila istorio ditu kontatzeko.

Arkeologia ikasketak bukatu eta segituan, Mexikora bidaiatu zuen, bere lehenengo indusketak egitera. Ondoren, Ameriketako Estatu Batuetara joan zen, master bat ikastera. Ordutik, munduan zehar ibili da indusketak eta ikerketa prozesuak egiten. Egun, Deustuko Unibertsitateko irakaslea da.

Zergatik ikasi zenuen arkeologia?

Ni txikia nintzenez mendira joaten nintzen, jendea ikusten nuen. Lurra zulatzen ari ziren. Nik galdetu nion nire aitari: “Zer egiten ari dira?” Erantzun zidan niri: “Arkeologoak dira”. Ordutik gustatzen zait, eta esan nuen: “Arkeologoa nahi dut izan”. Horregatik arkeologia ikasi dut.

Zein da aurkitu zenuen gauzarik inportanteena lurraren azpian?

Luziaren hezurra interesgarria izan zen. Nik lan egiten nuen Texas-ko Unibertsitatekin eta ulertu nuen nola hil zen.

Nor da Luzia?

Luzia historiako australopiteko famatuena da. Nik Luziaren azken ikerketan egin nuen lan. Han deskubritu nuen nola hil zen; arbola batetik erori zen.

Herrialde guztien artean, zein gustatzen zaizu gehien?

Nire herrialde faboritua Boli Kostata da. Zergatik gustatzen zait? Altxor asko aurkitu ditudalako. Egutero eguzkia eta beroa egiten zuen, baina ez zitzaidan inporta. Nire azken lana han, ezin izan nuen bukatu istripuagatik.

Zein istripu? Zer gertatu zen?

Aldamiotik erori nintzen eta apurtu nuen aldaka, besoa eta hanka. Gelditu nintzen gaizki eta min kronikoarekin. Orain ezin naiz makurtu. Kromo bat naiz.

Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu? Zein gustatzen zaizu gehien?

Sei hizkuntza. Euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelera

oso ondo; txinera eta alemana nahiko ondo. Gehien euskara, noski.

Nahi duzu beste hizkuntza bat ikasi?

Bai. Brasilgo portugesa, japoniera eta italiara ikasi nahi nuen, baina ez neukan denborarik, oso lanpetuta nengoelako. Baina orain denbora daukat eta ikasiko dut.

Zer gustatzen zaizu jatea etxetik kanpo?

Niri gustatzen zait italiar jate-txean jatea, 10 urtez Erroman bizi izan nintzen eta egun askotan bazkaltzen dut etxetik kanpo nire lanagatik.

Orain irakaslea zara Euskal Herriko Unibertsitatean. Gustatzen zaizu zure lanbidea? Zergatik?

Ez zait gustatzen nire lanbidea. Gehiago gustatzen zaidalako kanpoan lan egitea.

Aurtengo Korrikan lekukoa hartuko duzu. Nola sentitzen zara?

Pozik. Plazera da niretzat parte hartzea Korrikan. Prest nago korrika egiteko.

Egileak: Hernaniko Aek euskaltegiko Lotan taldea.



Korrika kozinatzeko bi errezeta

KORRIKA PRAKTIKOA

Osagaiak:

- Furgoneta
- Lekukoa
- Jendea
- Gogoa
- Petoa
- Txandala
- Zapatilak
- Musika
- Botila ur
- Herria

- Bozgorailua
- Antolaketa

Furgonetaren barruan jarriko ditugu osagai guztiak. Nahastu dena, nahastu jendea, jantzi txandala, zapatilak eta petoa, egosi gogoa botila ur batean.

KORRIKA AMESLARIA

Osagaiak:

- Ilusioa.
- Maitasuna.
- Harrotasuna.
- Ametsak.
- Ospakizuna.

Jarri mila milioi ilusio, ondoren, nahastu maitasuna, harrotasuna eta ospakizuna. Bukatzeko bota kilo pillla bat amets.

Korrika beti!!



Oinetako hegalaria

Gelako ikasleok whatsapp taldea sortu dugu: Korrikaren beteranoak.

Taldean, Korrikarako zapatilak erostea adostu genuen. Horregatik, egun batean Irungo oinetako denda batera joango gara. Izan ere, Irunen hasiko baita Korrika. Hori dela eta, taberna batean geratu ginen kafe bero eta goxo bat hartzera. Ondoren, dendako zerbitzari jatorrak oinetako egokiak erakutsi dizkigu, belautetan mina izan ez dezagun. Esaterako, mendian lasterka


ibiltzekoak, asfalto gainean erabiltzekoak... eta abar. Asfalto gainean ibiltzeko behar ditugula adierazi diogu zerbitzariari. Moeta desberdineko oinetakoak ikusi ditugu: lokaridunak edota belkrodunak, adibidez. Era berean, kolore ugarikoak izan ditugu eskuragarri: beltzak probatu ditugu, baina oso garestiak dira. Bukaeran, beste batzuk erosi ditugu: txuriurdinak dira.

Markarik ez dute: hau marka! Poz-pozik irten gara dendatik. Korrika egiteko prest gaudela! Eta zu?

Egileak: Hernaniko Aek euskaltegiko Karril Bizi taldea.

Gurutzegrama

Irudien izenak dagozkien lekuan idatzita, hitz-gakoa osatuko duzu.



HIZKI-ZOPA / NOLAKOAK GARA?

Z	U	H	U	R	R	A	A	A	T	E	B
U	U	L	H	Q	T	S	E	R	I	O	A
P	R	T	A	J	W	T	E	A	G	L	A
J	O	D	C	S	S	E	N	E	A	B	L
K	A	G	U	I	A	O	S	B	I	I	K
I	C	T	R	R	J	I	A	A	Z	H	O
K	S	T	O	F	I	Z	A	L	T	U	R
I	X	I	N	R	U	A	X	A	O	R	R
V	N	O	L	K	R	K	Y	I	A	R	I
R	C	E	S	A	A	A	L	A	V	I	K
J	V	E	Z	I	N	T	Z	O	A	A	A
E	T	K	B	E	R	R	I	T	S	U	A

Pertsonak deskribatzeko hitzen artean, "KORRIKA" hitza ere badago; baina non?

KORRIKA

Albiste asmatua, edo ez hainbeste

Hernani festaz janzten ari da, Korrika datorrelako

Egun hauetan ikusten da jendeak gauza asko prestatzen dituzte Korrikari ongi etorria egiteko.

Udala jolasak antolatzen ari da umeentzat. Plaza berrian jo-

lasak egongo dira. Handienentzat gudariaren plazan, berriz, txikientzat. Euria egiten badu, Atsegindegian egongo da.

Sagardotegiak ere aktibitateak edukiko dituzte. Bazkariak eman baino lehen euskal dantzak egongo dira.

Laster dena prest egongo da, ezin duzue faltatu. Animatu! Korrika badator!